

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

2026 urteko zirkulazio-zergaren kobraketa

Jakinarazten dut: martxoaren 1etik 31ra arte, borondatezko epean kobratuko direla ordainarazpen hauen 2026. urteari dagozkion ordainagiriak:

— Ibilgailuen zirkulazio-zerga.

1. Ordainketa-epea.

A) Borondatezko epea: 2026ko martxoaren 1etik 31ra.

B) Premiamendu-aldia, ehuneko 5eko errekararekin, apirilaren 1etik 15era arte, eta administrazio-premiamenduko betearazpen-prozedura adieraziko da, indarrean dagoen Zerga-bilketako Erregelamendu Orokorrean ezarritako xedapenekin bat etorritik.

2. Ordainketa egiteko lekua eta modua.

A) Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak: aurreko urteetan ordainketa helbideratuta dutenek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko banku-helbideratzearen kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuaren bidez helbideratuta ez dutenek borondatezko aldiaren zehar baino ezin izango dute egin Kutxabanken, Caixabanken edo Rural Kutxaren bulegoetan.

3. Gomendioak.

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide-aldaketak ere, hurrengo jakinarazpenetarako, Arratzua-Ubarrundiako Udalari bidali beharko zaizkio.

Hala jakinarazten da, zabalkunde orokorra izan dezan.

Duranan, 2026ko otsailaren 23an

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE